

TUR-era PASATZEA

Zerbait irakurri nuen egunkarian gasaren prezioaren igoerari buruz eta gomendagarria zela TURera pasatzea (tarifa erregulatua). Kontsumo Bulegora joan nintzen informazio bila eta fakturak eskatu zizkidaten, kilobatioa zenbat ordaintzen ari nintzen egiaztatzeko eta TURarekin alderatu ahal izateko.

Fakturak ikusi zituztenean konturatu ziren gas-instalazioa mantentzeko zerbitzu bat nuela. Nik ez nuen ideiarik ere, ez nekien gas-horniduraz gain ezer kontratatua nuenik, eta gainera, nire etxera ez ziren inoiz azterketa egitera etorri.

Kontsumo Bulegoan kontratua eskatu zidaten eta egiaztatu ahal izan zuten bertan ez zegoela jasota mantentze-zerbitzurik kontratatuta nuenik. Hilabeteak zeramatzaten kobratzen ordea!!

Kontsumo Bulegoak erreklamazio bat izapidetu zuen eta bi aldiz bidali ondoren enpresak erantzuten ez zuelako, azkenean lortu zuten baja ematea kontratatua ez neukan zerbitzu horri. Eta, onena, 885 euro itzuli zizkidaten urteetan kobratu zizkidaten kuota guztieNgatik!!!

Egin nien kontsultari buruzko informazioa emateaz gain, nik ez nekien arazo bat antzeman zuten eta konpondu egin zuten. Ezin pozik eta esker onez nago.